

Lankidetza hitzarmena sinatu dute Batz, S. Coop.-ek eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak

2015/05/26

Maiatzaren 22an sinatu zen lankidetzarako hitzarmen honen bidez MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Goi Eskola Politeknikoak azken urteetan ikerketa arloari eman dion bultzada indartu nahi da.

Bi erakundeek elkarlanean jardungo dute ikerketa zientifiko eta teknologikoan bien intereseko ezagutza arloetan, programak, proiektuak eta jarduerak garatuz eta ezagutza sortzea, elkartrukatzea eta transferitzea sustatuz.

